



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2024ko bigarren hiruhilekoa



LABORAL
kutxa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren osagaiak	7
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak	13
Eranskina – Indizeak	19
Eranskina – Metodologia	23
Fitxa Teknikoa	26

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA

- EAEko familien konfiantzak hobera egin du, eta (ia) positiboa da
- Estatuko eta EB-27ko familiak ezkorragoak dira oraindik
- EAEko familiak, inguruko herrialdeetakoak baino hobeto




1 EAEko familien konfiantzak hobera egin du, eta (ia) positiboa da

2024ko bigarren hiruhilekoan, EAEko familien konfiantzak hobera egiten jarraitzen du (+2), eta neutraltasunera gerturaten ari da (-3). Gainera, azpimarratzekoa da lau hiruhileko direla jada hobera egiten eta 2022ko eta 2023ko ezkortasunetik urruntzen ari dela (-11 eta -9, hurrenez hurren, urteko batezbestekoa).

Azken bederatzi hiruhilekoetako emaitzarik onena da (2022ko bigarren hiruhilekotik hona). Hala, agerian geratu da emaitza makroekonomikoek eta, batez ere, enpleguaren dinamismoak (maximo historikoetan dabil) gatazka geopolitikoaren eta agertoki inflazionistaren ondoriozko zalantzak gainditu dituztela. Egoera horiei interes-tasen igoera ere gehitu zitzaizen, baina dagoeneko hasi dira murrizten (EBZ, ekainaren 6a, -25 puntu). Azken buruan, testuinguru orokorra lasaiago dabil eta, horren ondorioz, EAEko familiak konfiantza hartzen ari dira berriro.

Kontsumitzaileen konfiantza. EAE




2 | Estatuko eta EB-27ko familiak ezkorragoak dira oraindik

EAEko familien konfiantza ez bezala (-3, +2 puntu), adierazlea bestelakoa da estatuko (-15) eta EB-27ko (-13) familien artean. Zertxobait hobera egin badu ere (+2 eta +1 puntu, hurrenez hurren), bistan da mailak negatiboak direla eta, beraz, ezkor jarraitzen dutela.

Eszeptizismo horren jatorria, neurri batean, agertoki makroekonomikoari zor zaio: hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenak² (2024) ahul samarrak dira EB-27an (+% 1,0), Europako ekonomia nagusien dinamismo txikiak eragotzita. Espainia salbuespen da: +% 2,1. Aurreikuspenak beteko dira (eta gorantz berrikusi ahalko dira) inflazioak behera egiten jarraitzen duen heinean; hala, bere ibilbidea nahikoa izan da interes-tasen lehen jaitsiera aplikatzeko (EBZ, ekainaren 6a, -25 oinarrizko puntu), eta pizgarri bat izango da eragile ekonomikoaren erabakietan.

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE, Estatuak eta EB-27¹




1. EB-27ren eta Estatuaren 2024ko bigarren hiruhilekoko datua behin-behinekoa da. Apiril-maiatzeko batezbestekoa
2. Europako Batzordea (European Economic Forecast, Spring 2024). 2024ko maiatzaren 15ean argitaratua

3 EAEko familiak, inguruko herrialdeetakoak baino hobeto

Erreferentziatzko herrialdeek konfiantza eskasa dute oraindik, eta ibilbidea ere halakoxea da: ezkorrak dira argi eta garbi, eta ia ez dira hobetu. Zehazki, nabarmentzekoa da Frantziako familien ezkortasuna (-15, eta -2 puntu egin du behera), Herbehereetako familiaena (-12; 0 puntu), Alemaniakoena (-10, 5 puntu igo den arren, oso negatiboa da oraindik) eta Danimarkako familiaena (-5). Danimarkan, EAEko familien indizearen antzekoa dute, baina beheranzko bidean (-1 puntu).

Eraitza horiek 2024rako aurreikusten den hazkunde ekonomikoarekin bat datoz (Europako Batzordea). Horien arabera, dinamismoa apalduko dute Alemaniak (+% 0,1), Frantziak (+% 0,7) eta Herbehereek (+% 0,8). Danimarkaren jarduna hobe da hein batean (+% 2,6).

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziatzko herrialdeak¹



1. Europako herrialdeen 2024ko bigarren hiruhilekoko datua behin-behinekoa da. Apiril-maiatzeko batezbestekoa

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGIAK

- EAEko familiek ekonomia orokorrarekiko duten ezkortasuna, bere horretan
- baikortasuna langabeziaren bilakaerari buruz
- familiaren ekonomiaren gaineko konfiantza hobetzen doa pixkanaka
- eta aurrezteko dituzten igurikimenak erabat baikorrak dira
- konfiantzaren osagai guztiek hobera egin dute


4 EAEko familiek ekonomia orokorrarekiko duten ezkortasuna, bere horretan

EAEko familiek ekonomia orokorraren egoerari buruz hurrengo hamabi hilabeteetarako dituzten igurikimenak zertxobait hobek dira (+2 puntu). Hala, hobera doazen ondoko ondoko laugarren hiruhilekoa da: -25, -21, -18 eta -16, 2023ko hirugarren hiruhilekotik 2024ko bigarren hiruhilekora. Baina adierazle horrek ezkortasunean jarraitzen du, balio negatiboek erakusten duten bezala.

Emaitza hori azaltze aldera, familia-multzo batek egoera ekonomiko orokorra zertxobait edo askoz okerragoa izango dela aurreikusten du (% 40,1; -2,4 puntu), baina garrantzia irabazten doa egoera antzekoa (% 44,3; +1,3 puntu) edo zertxobait edo askoz hobea (% 15,6; +1,1 puntu) izango dela uste duen familien multzoa.

Paradoxikoki, eszeptizismoa ez dator bat ezagutzen diren datuekin. Zehazki, urteko lehen hiruhilekoan (Eustat), EAEn BPGa hazi egin da (+% 0,6 eta +% 1,7, hiruhileko eta urte arteko tasa), baita enplegua ere (+% 0,5 eta +% 2,0, hurrenez hurren), eta maximo historikoetan sendotu da.

Ekonomia orokorrari buruzko egoeraren igurikimenak. EAE




5 | baikortasuna langabeziaren bilakaerari buruz

2024ko bigarren hiruhilekoan, EAEko familiek langabeziaren bilakaerari buruz duten baikortasuna sendotu egin da. Izan ere, aurreko hiruhilekoko balio berari eutsi diote (+2 puntu), eta maila positiboetan dabilen ondoz ondoko bigarren hiruhilekoa da.

Zehatz-mehatz, 10 familiatik hiruren ustez, langabeziak murrizten jarraituko du (% 30,7; +1,5 puntu); eta 10etik lauk pentsatzen dute eutsi egingo diola (% 44,8; -2,3 puntu). Beste familia batzuen iritziz, langabezia igo egingo da (% 24,5; +0,8 puntu).

Igurikimen horiek euskal lan-merkatuaren bilakaerarekin bat datoz (urtarrila-maiatzeko batezbestekoa): afiliazioak gorantz jarraitzen du (urte arteko tasa, +% 1,8), eta 1.011.163 pertsona daude afiliaturik. Aldi berean, erregistratutako langabezia pixka bat jaitsi da (urte arteko tasa, -% 0,1), eta 109.844 daude inskribatuta. Hala, euskal lan-merkatuaren bilakaera positiboa berretsi da.




6 | familiaren ekonomiaren gaineko konfiantza hobetzen doa pixkanaka

Etxeko ekonomiari buruzko igurikimenak pixka bat hobetu dira EAEko familien artean (+1 puntu), eta posizio neutral baterantz doaz. 2021eko hirugarren hiruhilekotik erregistratu den daturik onena da (-4). Langabeziarekin eta prezioekin lotutako igurikimeneak neurri handian baldintzatzen dute emaitza hori. Bi kasuetan balioak positiboak dira: +2 eta +5 hurrenez hurren.

Hala, aipatzekoa da EAEko 10 familiatik zazpi uste dutela beren etxeko ekonomia mantendu egingo dela (% 68,0; +2,9 puntu). Ia bi familiak pentsatzen dute okerrera joango dela (% 19,1; -1,8 puntu), eta batek baino zertxobait gehiagok hobekuntza aurreikusten du (% 12,9; -1,1 puntu).

Ibilbide inflazionistak familien konfiantza hondatu zuen. Lehengoratzten ari da, ordea, prezioen igoera baretzen den neurrian (+% 3,6, KPI orokorraren hazkundera, 2024ko maiatzeko aurrerapena), etxeko ekonomiaren gaineko igurikimenen berreskurapenak erakusten duen moduan.

Etxeko ekonomiaren egoerari buruzko igurikimenak. EAE




7 | eta aurrezteko dituzten igurikimenak erabat baikorrak dira

EAEko familien konfiantza osatzen duten adierazleen artean aipatzekoa da aurrezteko igurikimenak dezente hobetu direla hurrengo hamabi hilabetei begira. Ildo horretan, EAEko familiek posizio neutralean hasi zuten 2024a (0), eta emaitza hori indartu egin da bigarren hiruhileko honetan (+4; +4 puntu). Hartara, aurrezteko igurikimenen gaineko baikortasuna berretsi da eta azken bi urteotako daturik onena erregistratu da.

EAEko familien erdiak baino pixka bat gehiagok (% 56,1) aditzera eman du aurreztu egingo duela hurrengo hamabi hilabeteetan: % 18,9 ziur dago, eta % 37,2k aurreztuko du segur aski. Aurreko hiruhilekoko emaitza hobetu da, beraz: % 53,4; +2,8 puntu. Gainera, familien igurikimenak zuhurrak izaten dira, zeren familien bi heren (% 67,5) aurrezteko gauza izan dira azken urtean, eta erdiak baino zertxobait gehiagok (% 56,1) hurrengo hamabi hilabeteetan aurreztuko duela uste du.

Aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenak. EAE



8 | konfiantzaren osagai guztiek hobera egin dute

Gauzak horrela, EAEko familien konfiantza-indizeak hobetzen jarraitu du 2024ko bigarren hiruhilekoan, eta ia positiboa da (-3; +2 puntu). Emaitza horren oinarria konfiantzaren lau adierazle partzialak dira, jada positiboak diren emaitzak erakusten dituztelako edo ezkortasuna murrizten jarraitzen dutelako (ez dira hain negatiboak).

Zehazki, EAEko familiek langabeziaren bilakaerari buruzko baikortasunez ekingo diote udari (+2; 0 puntu), eta baikor dira, halaber, aurrezteko gaitasunari dagokionez (+4; +4 puntu). Bestalde, etxeko ekonomiaren bilakaera dela eta, posizio neutralera hurbiltzen doaz (-4; +1 puntu), eta egoera ekonomiko orokorrari buruzko igurikimenen ezkortasuna behera egiten ari da (-16; +2 puntu). Hain zuzen, orain ere puntu gutxien jasotzen dituen konfiantzaren adierazlea da.

Labur esanda, EAEko familien konfiantzaren hobekuntza sendotu egin da urtearen lehen zatian, eta baikortasunerantz doa. Langa horretara iristeko aukera dago hobetzeko ibilbidea urtearen bigarren erdian mantentzen bada. Familien konfiantzaren bultzadak baldintzatzaileak izango ditu: hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenak betetzea, inflazioa baretuko dela berrestea eta interes-tasen beheranzko doikuntzaren hasiera (EBZ, ekainaren 6a, -25 oinarrizko puntu).

Familien konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	2019	2020	2021	2022	2023	IIIH-23	IVH-23	IH-24	IIIH-24	Aldea	
Familien konfiantza	-2	-22	-6	-11	-9	-13	-9	-5	-3	2	▶
Ekonomia orokorra	-6	-33	-12	-23	-21	-25	-21	-18	-16	2	▶
Etxeko ekonomia	-2	-12	-8	-17	-12	-16	-9	-5	-4	1	▶
Langabeziaren bilakaera	-4	-41	-8	-1	-4	-6	-4	2	2	0	▶
Aurrezteko gaitasuna	2	-2	3	-2	-2	-4	-1	0	4	4	▲

↔ (±2 puntuko aldea)

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN EROSKETA-ERABAKIAK

- EAEko familiek uste dute inflazioak moteltzen jarraituko duela
- baina ezkor dira erosteko (oraingo) uneari buruz
- nahiz eta erosketa handien igurikimenak suspertu, eta ia positiboak diren
- aldaketarik ez etxebizitza edo ibilgailua erosteko asmoan
- kontsumo handiarekin lotutako igurikimenak baikortasunerantz doaz




9 | EAEko familiek uste dute inflazioak moteltzen jarraituko duela

Prezioen igoerari¹ buruzko igurikimenek hobetzen jarraitu dute (+4 puntu), eta zeharo positiboak dira orain (+5 puntu). Lehen hiruhilekoko emaitza indartu da, beraz (+1 puntu). Horrenbestez, lehen sei hilekoaren balantzean, prezioen bilakaerari buruzko baikortasuna nagusitu da.

Emaitza horren jatorria da EAEko familien heren batek (% 33,8) uste duela prezioak motelago igoko direla iaz baino, eta 10etik ia lauren iritziz (% 37,8), erritmo berean igoko dira. Hartara, pertzepzio orokorra da inflazioa murriztuko dela. Hain zuzen ere, prezioak bizkorrago igotzea aurreikusten duten familien multzoa (% 28,3) nabarmen murriztu da 2023ko hirugarren hiruhilekotik hona (% 38,7).

Igurikimen horiek eta inflazioaren ibilbidea koherenteak dira: prezioen urte arteko hazkundera (KPI orokorra) EAEn eta estatuan (+% 3,5 eta +% +3,3 apirilean) txikiagoa da duela urtebetekoa baino (+% 4,2 eta +% 4,1). Halaber, azpimarratu behar da azpiko osagaia² doitu egin dela (+% 3,1 eta +% 2,9 apirilean); adierazle orokorra baino mantsiago hazten ari da jada.

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?¹ (pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabeteetarako dagokionez; ² Prestatu gabeko elikagaiaketa produktu energetikoak kenduta

10 | baina ezkorrak dira erosteko (oraingo) uneari buruz


Oro har, zer iruditzen zaizu oraingo unea etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteko?

EAEko familiak prezio altuen agertokia ari dira xurgatzen. Prezioak hainbeste ez igotzea aurreikusten dute, baina igurikimen hori ez da oraindik iritsi erosketa handiak egiteko oraingo unearen baloraziora, oraindik negatiboa baita erabat (-20), nahiz eta hobekuntza arina erregistratu den (+4 puntu).

Alde horretatik, 10 familiatik hiruren aburuz (% 31,2), erosteko unea txarra da, eta une ona dela uste dutenen multzoa (% 11,5) halako hiru da. Emaidza osatzeko, erosteko uneari buruzko ikuspegi neutrala duten familien multzoa dago (% 57,3).

Erosteke unearen balorazioarekiko axolagabetasun hori "beharrik ez izatearekin" edo erosteko gaitasunarekin (beharrezkoa izanez gero) lotuta egongo litzateke; bestalde, une txarraren balorazioa erosketa horiei (beharrezkoak izan ala ez) aurre egin ezin izatearekin lotuta dago. Hala, familien heren batek uste du une txarra dela (zifra hori azken urtean ez dutela aurreztu erantzun dutenen antzekoa da).

Erosteke unearen balioztapena¹ (pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabetei dagokienez

11 nahiz eta erosketak handien igurikimenak suspertu, eta ia positiboak diren


Zure ustez, nolakoak izango dira etxeko erosketak edo gastuak (hala nola altzariak, etxetresna elektrikoak, etxebizitzako konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan¹?

Bigarren hiruhilekoan, erosketak handiak egiteko igurikimenak hobetu egin dira (+6 puntu). Igoera horrek azken hiruhilekoetako ezkortasunetik urruntzen du adierazlea (-8, -7 eta -6, 2023ko hirugarren hiruhilekotik 2024ko lehen hiruhilekora), eta baikortasunerantz darama egungo balio neutraletik (0) abiatuta.

Emaitza hori lortu da erosketak murriztuko dituela uste duten familien multzoak behera egin duelako (% 19; -5 puntu). Aldiz, erosketak handituko (% 21; +3 puntu) edo mantenduko (% 60; +2 puntu) dituztenen multzoak gora egin du.

Hala, EAEko familiek prezioen bilakaerari (inflazio txikiagoa aurreikusten dute) eta etxeko ekonomiaren bilakaerari (ibilbide ia positiboa aurreikusten dute) buruz dituzten igurikimen positiboek adierazle hori baldintzatzen dute. Hortaz, familien kontsumoaren dinamismoak bultzada bat jaso du, 2024ko lehen hiruhilekoan % 0,9 eta % 1,7 handitu zen eta, hiruhileko eta urte arteko tasan.

— Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan¹ —
(pertsonek %a)




¹ Azken 12 hilabeteetako datuak.

12 | aldaketarik ez etxebizitza edo ibilgailua erosteko asmoan

EAEko familien % 0,7k etxebizitza bat erosiko du (ia seguru) hurrengo hamabi hilabeteetan. Beraz, erosteko asmoa ahula da eta azken bi urteotako asmoaren antza du. Aurtengo lehen hiruhilekoan¹, etxebizitzaren 5.413 salerosketa-eragiketa formalizatu dira (urte arteko -% 11,9). Horrek argi islatzen du jarduerari dinamismoa falta zaiola, finantzatzeko kostua handiagoa baita, eta, batez ere, etxebizitza-eskaintza eskasa bistakoa baita.

Etxebizitza erosteko asmoa


(hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonen %a)



EAEko familien % 4,8k ibilgailu bat erosiko du hurrengo hamabi hilabeteetan. Eroste asmo hori sendotu egin da (% 5,2 lehen sei hilekoan) eta gora egin du 2023aren aldean (% 4,3, urteko batezbestekoa). Eraitza bat dator hobera egiten ari den matrikulazioarekin (urtarrila-maiatzean, 10.230 ibilgailu berri, urte arteko +% 2,2ko tasa), baina ez da 2016-2019ko mailara heldu.

Ibilgailua erosteko asmoa

(hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonen %a)



¹ EIN, Jabetza-eskubideen transmisioen estatistika (etxebizitzaren salmenta); ² Anfac.

13 | kontsumo handiarekin lotutako igurikimenak baikortasunerantz doaz

Kontsumoarekin lotutako igurikimen-adierazle guztiak nabarmen hobetu dira urteko bigarren hiruhilekoan, eta baikortasunari begira daude:

- EAEko familien igurikimenak positiboak dira prezioen bilakaerari dagokionez (+5): aurreko hiruhilekoko emaitza hobetu da (+1) eta balio baikorrak sendotu dira. Hala, inflazioa murrizteko joera gailentzea aurreikusten dute.
- Alderdi negatiboa erosketak handiak egiteko oraingo unearen balorazioa da berriz. Hobetu egin da (+4 puntu), baina negatiboa da argi eta garbi (-20), eta igotzen jarraitzen duten prezio altuetan oinarritzen da (nahiz eta moteltzen doazen).
- Ildo horretan, adierazi behar da inflazioa baretu izanak erosketak handiak egiteko igurikimenen hobekuntza azaltzen duela. Hain zuzen, azken hiruhilekoetan nagusitu den ezkortasunetik urrutiratzen ari dira, eta baikortasuneranzko bidea hartu dute (0). Emaitza sendotu behar da urtearen bigarren zatian.
- Azkenik, etxebizitza erosteko asmoak egonkor jarraitzen du: familien % 0,7k etxebizitza erosiko duela uste du. Eta ibilgailua erosteko igurikimenak sendotu egin dira, EAEko familien % 5ek ibilgailu bat erosiko duela adierazi baitu.

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	2019	2020	2021	2022	2023	III H-23	IV H-23	I H-24	II H-24	Aldea	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	-20	-22	-41	-48	-6	-7	-7	1	5	4	▲
Erosteke unearen balorazioa	-5	-13	-12	-34	-27	-29	-23	-23	-20	4	▲
Erosketak egiteko igurikimenak	0	-12	-2	-11	-7	-8	-7	-6	0	6	▲

↔ (±2 puntuko aldea)

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantzaren indizea

euskal familien konfiantzaren indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazle batzuk



I | laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2019	2020	2021	2022	2023	III H-23	IV H-23	I H-24	II H-24	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea										
• EAE	-2	-22	-6	-11	-9	-13	-9	-5	-3	▶
• Estatua*	-6	-23	-13	-26	-19	-16	-19	-17	-15	▶
• EB*	-6	-14	-7	-22	-17	-16	-16	-14	-13	▶
○ Frantzia*	-8	-13	-7	-18	-17	-15	-15	-13	-15	▶
○ Alemania*	-2	-9	-5	-20	-15	-15	-15	-15	-10	▲
○ Danimarka*	4	1	5	-14	-8	-6	-6	-4	-5	▶
○ Herbehereak*	-7	-13	-4	-25	-18	-18	-14	-12	-12	▶
Osagaiak: familien konfiantza. EAE										
• Ekonomia orokorra	-6	-33	-12	-23	-21	-25	-21	-18	-16	▶
• Etxeko ekonomia	-2	-12	-8	-17	-12	-16	-9	-5	-4	▶
• Langabezia	-4	-41	-8	-1	-4	-6	-4	2	2	▶
• Aurrezkia	2	-2	3	-2	-2	-4	-1	0	4	▲
Beste indize batzuk. EAE										
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-20	-22	-41	-48	-6	-7	-7	1	5	▲
• Erosteke unearen balioztapena	-5	-13	-12	-34	-27	-29	-23	-23	-20	▲
• Erosketak egiteko igurikimena	0	-12	-2	-11	-7	-8	-7	-6	0	▲
Erosketa handiak. EAE**										
• Etxebizitza	2,1	0,9	1,5	1,2	0,6	0,4	0,2	0,4	0,7	▶
• Autoa	6,4	5,3	6,3	6,5	4,3	3,9	4,0	5,5	4,8	▶

⇔ (± 2 puntuko aldea)

* II. hiruhileko datuakapirila-maiatza batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II | euskal familien konfiantzaren indizea, ezaugarrien arabera

	2019	2020	2021	2022	2023	III H-23	IV H-23	I H-24	II H-24	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea										
• EAE	-2	-22	-6	-11	-9	-13	-9	-5	-3	▶
Adin-taldeak										
• 25 eta 39 urte bitartean	4	-17	-4	-4	-10	-11	-7	-9	-7	▶
• 40 eta 54 urte bitartean	-2	-22	-7	-14	-9	-14	-7	-5	-3	▶
• 55 eta 64 urte bitartean	-6	-25	-6	-11	-6	-10	-8	-3	0	▲
• 65 eta 74 urte bitartean	-8	-26	-8	-14	-12	-15	-15	-4	-1	▲
Lan egoera										
• Landuna (soldatapekoa/norbere kontura)	1	-19	-4	-10	-7	-11	-5	-5	-3	▶
• Langabea	-8	-31	-16	-19	-23	-25	-23	-24	-13	▲
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)	-6	-25	-7	-12	-9	-13	-11	-1	-1	▶
Familia-unitatearen hileko errenta										
• 1.700 €-rainokoa	-13	-32	-19	-22	-20	-27	-13	-17	-18	▶
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	0	-19	-6	-11	-9	-11	-15	-4	-3	▶
• 2.800 €-tik gorakoa	4	-14	6	-1	-1	-3	-1	1	5	▲

⇔ (±2 puntuko aldea)

III | beste adierazle batzuk

	II H – 23	III H – 23	IV H – 23	I H – 24	II H – 24 _b	(azkena)
BPG	1,5	1,7	1,7	1,7	--	I. hiruhilekoa
Familien kontsumoa	0,9	1,6	1,5	1,7	--	I. hiruhilekoa
Afiliazioa	1,2	-0,8	1,8	-0,3	0,9	apirila-maiatza
Erregistratutako langabezia	-4,1	0,3	1,2	2,4	-2,8	apirila-maiatza
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	1,1	-0,7	1,6	0,5	--	I. hiruhilekoa
Etxebizitzen salerosketa	-17,2	-0,3	-17,1	28,7	--	I. hiruhilekoa
Ibilgailuen matrikulazioa	9,6	-18,8	29,4	-10,6	0,4	apirila-maiatza

b: behin behinekoa

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Anfac. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziarako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, azken aldakuntza behin behinekoa da eta hori kalkulatzeko eskura dagoen azken datua (bi hilabete) hartzen da kontuan.

Erreferentziarako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

ERANSKINA– METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esan nahi du indizearen bilakaerak?



I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleak:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ *Consumer Confidence Indicator*, dokumentu honetan familien konfiantzaren indize bezala aipatzen dena, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobeagorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.


Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie
- 2024ko maiatzaren 13tik 24ra (2024ko II. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm